

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 48/2021 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa. Onespena ematea TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegiari

Tresna teknologikoak erabiltzeko betebeharra ezartzen duen apirilaren 21eko 13/2021 Foru Araua onartzeak eskutik ekarri du Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) zerga iruzurra eta ihesa saihesteko eta hautemateko irtenbide teknologiko eraginkorrak ezartzeko eman dituen gomendioak gauzatzea. Bereziki, salmenta elektronikoak kenduz diruzko sarreren aitortpen txikiagoa egitea eta tresna faltsuak erabiliz gastuen aitortpen handiagoa egitea.

Era berean, onarpen horrek aurrerapen kualitatiboa dakar Araban, Euskadiko Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Batzordeak egindako estrategia erkidearen ezarpenaren ildoan, jarduera sektore jakin batzuetan, fakturazio sistemak kontrolatzeko tresnen ezarpena aztertu ahal izateko.

Aipatutako Foru Arauak onetsi duen zerga iruzurra saihesteko tresna teknologikoak erabiltzeko betebeharra ezartzearekin batera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatuta, zergadunek neurri teknologiko aurreratuak nahitaez erabili behar dituztela ezarri da, fakturazio sistemetan tresna teknologiko berriak erabiliz, horrek ahalbidetuko duelarik jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen zerga ordainketa kontrolatzea, haien tamaina edo bolumena edozein dela ere.

Foru Arauan ageri diren artikuluetan aderazi denez, zenbait gaik ondoko garapena izango dute, eta, beraz, beharrezkoa da foru dekretu hau onartzea. Dekretuaren helburua dugu iruzur fiskala saihesteko tresna teknologikoak erabiltzeko betebeharraren erregulazioa osatzea.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharri erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Kontsulta Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira. Txosten horien ondorioak ez dira jarraitu.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT
ATARIKO KAPITULUA
Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

Foru Dekretu honek ondasun emate eta zerbitzu emate guztiak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatuko dituen sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra garatzen du. Betebehar hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 122. bis artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 113 bis artikuluan ezarrita dago.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Foru Dekretu hau jarraian agertzen diren zergadunei aplikatuko zaie, betiere Arabako Lurralde Historikoko zerga araudia aplikatu behar bazaie:

- a) Sozietateen gaineko Zergaren zergapekoei.
- b) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei eta jarduera ekonomikoak errenta egozketan garatzen dituzten erakundeei.
- c) Establezimendu iraunkor baten bidez errentak lortzen dituzten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergapekoei.

3. artikulua. Definizioak eta erreferentziak

Foru Dekretu honen eta hura garatzeko araudiaren ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

a) TicketBAI betebeharra: Ondasun emate eta zerbitzu emate guztiak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatuko dituen sistema informatiko bat erabiltzeko betebeharra. Betebehar hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 122. bis artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 113 bis artikuluan ezarrita dago.

Definizio hori, oro har, zerga araudi osoan erabili ahal izango da.

b) TicketBAI software-a edo software bermatzailea: TicketBAI Softwarearen Erregistroan inskribatutako sistema informatikoa edo programa, jarraibide eta arau informatikoen multzoa, ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzen dituena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 122. bis artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 113 bis artikuluan, foru dekretu honetan eta hori garatzeko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru aginduaren bidez onartzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionaletan xedatutakoa betez.

c) TicketBAI softwarearen erregistroa edo software bermatzailearen erregistroa: TicketBAI softwarea garatzen duten pertsonen eta erakundeen eta horiek garatutako TicketBAI softwareek osatutako erregistroa.

d) Pertsona edo erakunde garatzailea: pertsona fisikoa edo juridikoa, edo nortasun juridikorik gabeko erakundea, TicketBAI software-erregistroan inskribatu den TicketBAI softwarea garatu duena.

e) Faktura edo egiaztageria: paperezko edo euskarri elektronikoko dokumentua, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera emandakoa.

f) TicketBAI fitxategiak: alta fitxategiak eta/edo baliogabetze fitxategiak, hurrengo bi letretan definitutakoak.

g) Alta fitxategia, TicketBAI alta fitxategia, TicketBAI softwarearekin egindako eragiketen alta fitxategia edo software bermatzailearekin egindako eragiketen alta fitxategia: XML formatuko fitxategia, foru dekretu honetan xedatutakora egokitzen den faktura edo egiaztagiri bat egin aurretik eskuratzen dena.

h) Baliogabetze fitxategia, TicketBAI baliogabetze fitxategia, TicketBAI softwarearekin egindako eragiketen baliogabetze fitxategia edo software bermatzailearekin egindako eragiketen baliogabetze fitxategia: XML formatuko fitxategia, foru dekretu honetan xedatutakora egokitzen den faktura edo egiaztagiri bat baliogabetu aurretik eskuratzen dena.

i) TicketBAI kodea edo identifikazio kodea: kode alfanumerikoa, faktura baten identifikatzailea edo TicketBAI software batez sortutako egiaztagiria.

j) QR kodea: TicketBAI software batez sortutako faktura edo egiaztagiri batean kodetutako eta identifikatutako datuak gorde ditzakeen bi dimentsioko barra kodea.

k) XML formatua: eXtended Markup Language formatua, etiketak markatzeko SGMLtik eratorritako lengoia da, eta dokumentuen egiturak definitzeko balio du.

l) Mahaigaineko aplikazioa: TicketBAI softwarea, modu telematikoan fitxategi informatiko batean banatzen dena, Internet bidez, edo euskarri fisikoaren bidez. Beraz, TicketBAI softwarearen kopia fisikoa dago hura erabiltzen duen fakturazio gailu bakoitzean.

m) Arkitektura banatua duen aplikazioa: Zerbitzari batean edo zerbitzari multzo batean zentralizatutako TicketBAI softwarea; beraz, mahaigaineko aplikazioa ez bezala, ez da erabiltzaileen artean banatzen, pertsona horiek bezero arin estandar baten bidez sartzen baitira (adibidez, web-nabigatzaile baten bidez).

n) Fakturazio gailua: software bermatzaile sartzeko gailua, nahiz eta gailu hori urruneko zerbitzari batera sartu softwarea baliatzeko. Banatutako arkitekturetan, gailua bezeroa izango litzateke.

ñ) 122 bis artikulua: adierazpen horrek Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 122 bis artikuluz dihardu.

o) 113 bis artikulua: adierazpen horrek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 113 bis artikuluz dihardu.

I. KAPITULUA

Betebeharraren aplikazio eremuaren mugak. Salbuespenak

4. artikulua. TicketBAI betebeharra betetzetik salbuestea

1. TicketBAI betebeharra betetzetik salbuestita geratuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide bereziari loturik tributatzen dutenak, faktura egiteko betebeharra maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 16. artikulua 1. paragrafoak jasotzen duen ordainagiria igorritz betetzen dela ulertzen diren eragiketetan.

2. Zergadunak TicketBAI betebeharra betetzetik salbuestita geratuko dira, ondoan zehazten diren eragiketei dagokienez:

a) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, faktura egiteko betebeharra eragiketaren hartzaile den pertsona edo erakundeak betetzen duenean, baldin eta azken horri eskatu ezin bazaio, Arabako Lurralde Historikoko zerga araudian aurreikusitako TicketBAI betebeharra, edo, bestela, Bizkaiko edo Gipuzkoako Lurralde Historikoetan araututa dagoen TicketBAI betebeharraren antzekoren bat.

b) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren bigarren eta bosgarren xedapen gehigarrietan aipatzen direnak.

c) Atzerrian dauden establezimendu iraunkorren bidez egindako eragiketen fakturretan edo egiaztagirietan dokumentatzen diren eragiketak.

5. artikulua. Fakturan edo egiaztagirian QR kodea eranstetik salbuestea

Ez da beharrezkoa izango QR kodea fakturan edo eragiketaren egiaztagirian eranstea, faktura edo egiaztagiria formatu elektronikoa irakurtezin batean soilik egiten eta bidaltzen denean.

6. artikulua. Beste salbuespen batzuk

1. Ogasun Zuzendaritzak, interesdunak alde aurretik eskatuta, TicketBAI betebeharretik salbuestea ebatzi ahal izango du honako kasu haueetan:

a) Enpresa sektoreei, pertsona profesionali edo enpresa jakin batzuei dagokienez, kasuan kasuko sektoreko merkataritza edo administrazio jardunbideengatik justifikatuta dagoenean, edo enpresa edo lanbide jardueren garapenean nahasmendurik ez sortzeko.

b) Betebeharra eragozten duten salbuespenezko inguruabar teknikoak dituzten eragiketei dagokienez. Salbuespen hori aldi baterakoa izango da, eta eragiketa horiekin lotutako betebeharrak bete ahal izateko beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko konpromisoari lotuko zaizkio; hala, ondorioak amaitu egingo dira salbuespena erabakitzea eragin zuten salbuespenezko inguruabarrak desagertu direla egiaztatzen denean.

Paragrafo honetan xedatutako ebazpenek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte baimen bakoitzean.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, foru agindu bidez, TicketBAI betebeharretik salbuesteko beste kasu batzuk ezar ditzake, hori justifikatzen duten salbuespenezko inguruabarrak daudenean.

Foru Aginduak baldintza bereziak ezar ditzake kasu bakoitzean.

3. Aurreko paragrafoetan araututako salbuespenak TicketBAI betebeharrari berari buruzkoak izan daitezke, bai eta 122 bis eta 113 bis artikuluen 1. paragrafoan jasotako betebeharrak horren alderdi jakin batzuei buruzkoak ere.

II. KAPITULUA

TicketBAI betebeharra betetzea

7. artikulua. TicketBAI betebeharra betetzeko gaitutako pertsonak

1. Zergadunak edo horretarako izendatutako ordezkariak bete ahal izango du TicketBAI betebeharra, eta betebeharrak betetzeko ahalmena izango du.

2. Hirugarren batek edo eragiketaren hartzaile den pertsona edo erakundeak ere bete ahal izango du TicketBAI betebeharra. Kasu horietan, hirugarrena edo pertsona zein erakunde hartzaile izan beharko du, fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduan (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa) ezarritakoaren arabera, faktura edo egiaztagiria egiteko betebeharraren ondorioetarako.

TicketBAI betebeharra hirugarren batek era materialean betetzen duenean, zergadunaren araudiaren arabera bete beharko du, betiere zergadunaren izenean eta haren kontura jardunez.

3. Pertsona bat hirugarrena edo hartzailea eta ordezkari baimenduna denean, TicketBAI betebeharra betetzeko, ordezkari izaera nagusituko da.

4. Edozein kasutan, zergaduna izango da TicketBAI betebeharra betetzearen arduraduna.

8. artikulua. TicketBAI betebeharra betetzeko baliabide informatikoak

TicketBAI betebeharra betetzeko, sistema informatiko hauetako bat erabili beharko da:

a) Arabako Foru Aldundiak horretarako garatutako aplikazio informatikoa. Aplikazioaren erabilera zergadun jakin batzuentzat mugatu ahal izango da, aplikatu beharreko zerga araubidearen edo inguruabar berezien arabera. Muga horiek Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko dira.

Arabako Foru Aldundiak zergadunaren eskura jarritako aplikazio informatikoa zergadunak berak edo behar bezala baimendutako haren ordezkariak bakarrik erabili ahal izango du, aurreko artikulua 1. paragrafoan aipatzen den moduan.

b) TicketBAI softwarearen bat.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, foru agindu bidez, TicketBAI softwareek bete behar dituzten zehaztapen tekniko eta funtzionalak garatu ahal izango ditu.

III. KAPITULUA**TicketBAI softwarearen baldintzak****1. ATALA. TicketBAI softwarearen baldintzak betetzeko agindua****9. artikulua. TicketBAI softwarearen baldintzak betetzeko hurrenkera**

TicketBAI softwareak 122 bis eta 113 bis artikuluen 1. paragrafoan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, hurrenkera honen arabera:

Lehenengoa. TicketBAI fitxategi bat sortu beharko du ondasun emate edo zerbitzu emate bakoitzeko. TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatu beharko da, foru dekretu honetan ezarritako eran.

Bigarrena. Faktura edo egiaztagiria ematearekin batera, TicketBAI fitxategia telematikoki bidali beharko da Arabako Foru Ogasunera.

Hirugarrena. Eragiketaren fakturak edo egiaztagiriak TicketBAI kodea eta QR kodea izango ditu.

2. ATALA. TicketBAI fitxategia sortzea**10. artikulua. TicketBAI alta fitxategia sortzea**

TicketBAI alta fitxategia faktura edo egiaztagiria egin aurretik sortu beharko da, foru dekretu honen 17. artikuluan jasotako salbuespenezko kasuei kalterik egin gabe.

Zergaduna faktura edo egiaztagiria egiteko betebeharretik salbuetsita dagoenean, eragiketa egiten den unean sortuko da TicketBAI alta fitxategia.

11. artikulua. TicketBAI alta fitxategiaren edukia

1. TicketBAI alta fitxategiak, gutxienez, informazio hau jasoko du:

a) Faktura edo egiaztagiria eman duen pertsonaren edo erakundearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa.

b) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen erregelamenduan xedatutakoaren arabera nahitaezkoa denean, eragiketen hartzaile den pertsonaren edo erakundearen identifikazio fiskaleko zenbakia (hala badagokio, Europar Batasuneko edozein estatu kideetako zerga administrazio eskudunak esleitutakoa) eta izen abizenak, izena edo sozietatearen izen osoa.

c) Faktura edo egiaztagiria eragiketak egiten dituen pertsonak edo erakundeak berak, hartzaileek edo hirugarrenek jaulki duten adieraztea, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 5. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

d) Fakturaren edo egiaztagiriaren zenbakia eta, hala badagokio, seriea.

e) Faktura edo egiaztagiria egin den eguna eta ordua, eta dokumentatzen diren eragiketak egin diren data edo, hala badagokio, aurreratutako ordainketa jaso den eguna, baldin eta faktura edo egiaztagiria egin den eguna ez bada.

f) Jaulkitako faktura mota, faktura osoa edo erraztua den zehaztuta.

g) Faktura artzezlea bada, fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 15. artikulua araututakoaren arabera (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori), faktura mota, ezaugarriak eta, bereziki, zuzendutako fakturen identifikazioa.

h) Faktura aurretik egindako faktura sinplifikatuen ordeztu egindako faktura bati badagokio, faktura sinplifikatu ordeztuen identifikazioa.

i) Eragiketen deskribapen orokorra.

j) Fakturaren edo egiaztagiriaren eragiketa edo lerro bakoitzaren deskribapena, honako hauek jasota: kopurua, balio erantsiaren gaineko zergarik gabe adierazitako unitate prezioa, unitate prezio horretan kontuan hartuta ez dagoen edozein deskontu edo beherapen, eta fakturaren edo egiaztagiriaren lerro bakoitzean jasota dauden eragiketen zenbateko osoa, BEZa barne.

Eragiketaren deskribapenak ez ditu jasoko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua xedatzen dituen babestutako datuak. Erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetu zuen.

k) Fakturaren edo egiaztagiriaren zenbateko osoa, eta, hala badagokio, jasandako atxikipe-naren zenbatekoa.

l) Dokumentatutako eragiketei aplikatu zaien zerga araubidea edo araubideak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako edo zerga garrantzia duten beste eragiketa batzuen ondorioetarako.

m) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Araue-mailearen 78. eta 79. artikuluen arabera zehaztutako eragiketen zerga oinarria, aplikatu beharreko zerga tasa edo tasak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota, aplikatutako baliokidetasun erre-karguaren tasa edo tasak, eta baliokidetasun erre-karguaren kuota. Bereziki, adieraziko beharko da dokumentatutako eragiketa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide sinplifikatua edo, bestela, baliokidetasun erre-karguaren araubidea aplikagarri zaion zergadun batek egin duen.

n) Dokumentatzen den eragiketa Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita badago, salbuetsitako zerga oinarriaren zenbatekoa eta salbuespenaren arrazoa.

ñ) Eragiketa Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta ez badago, eragiketa horri dagokion zenbatekoa eta zergari ez atxikitze arrazoa.

o) Aurreko fakturaren edo egiaztagiriaren zenbakia eta, hala badagokio, seriea, jaulkipen data eta aurreko fakturari edo egiaztagiriari dagokion TicketBAI fitxategiaren sinadura elektro-nikoaren lehen 100 posizioak.

p) TicketBAI softwarearen honako informazio hau: pertsona edo erakunde garatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia, eta Arabako Foru Aldundiak edo, hala badagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Bizkaiko Foru Aldundiak esleitutako alta inskripzioaren zenbakia. Informazio horrek bat etorri beharko du TicketBAI softwarearen erregistroan alta ematean emandakoarekin. Era berean, TicketBAI softwarearen izena eta bertsioaren kodea adierazi beharko dira.

2. TicketBAI alta fitxategian agertzen diren diruzko zenbateko guztiak eurotan adierazi beharko dira. Faktura edo egiaztagiria euroa ez den diru edo dibisa batean egin bada, dagokion bihurketa egin beharko da, TicketBAI alta fitxategian islatzeko.

3. Artikulu honetan aipatzen den informazioa TicketBAI alta fitxategian gehitu beharko da, Ogasun, Finantzak eta Aurrekontuen foru diputatuak foru agindu bidez ezartzen dituen egitura, edukia, formatua, diseinua eta ezaugarriak kontuan hartuta.

12. artikulua. TicketBAIren baliogabetze fitxategiaren edukia

1. Faktura edo egiaztagiri bat baliogabetu behar den kasuetan, baliogabetzeko fitxategia sortuko da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontueen foru diputatuak foru agindu bidez ezartzen dituen egitura, edukia, formatua, diseinua eta ezaugarriak kontuan hartuta.

2. Baliogabetzeko fitxategiak, gutxienez, informazio hau jasoko du:

a) Faktura edo egiaztageria eman duen pertsonaren edo erakundearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta izen-abizenak edo sozietatearen izen osoa.

b) Baliogabetutako fakturaren edo frogagiriaren zenbakia eta, hala badagokio, seriea.

c) TicketBAI softwarearen honako informazio hau: pertsona edo erakunde garatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia, eta Arabako Foru Aldundiak edo, hala badagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Bizkaiko Foru Aldundiak esleitutako alta inskripzioaren zenbakia. Informazio horrek bat etorri beharko du TicketBAI softwarearen erregistroan alta ematean emandakoarekin. Era berean, TicketBAI softwarearen izena eta bertsioaren kodea adierazi beharko dira.

13. artikulua. Fitxategi informatikoen sinadura elektronikoa

Aurreko artikuluetan aipatutzen diren alta etabaliogabetze fitxategiak elektronikoki sinatu beharko dira.

Sinadura elektronikoa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezartzen dituen sinadura politikaren zehaztapen eta betekizuneen arabera egokituko da, eta kasu zehatzetarako ziurtagiri jakin batzuk erabiltzeko mugak ezarri ahal izango ditu.

3. ATALA. TicketBAI fitxategia bidaltzea**14. artikulua. TicketBAI fitxategiak Zerga Administrazioari bidaltzea**

1. TicketBAI softwareak, faktura edo egiaztageria ematearekin batera, ziurtagiri elektronikoa onargarri baten bidez, alta emateko fitxategia bide telematikoz bidali beharko dio Zerga Administrazioari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak foru agindu bidez onartzen dituen zehaztapen tekniko eta funtzionalen eta igorpen betekizunen arabera.

Baliogabetze fitxategiari dagokionez, eragiketaren faktura edo egiaztageria baliogabetzen den unean bidaliko da.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak gizarte lankidetzarako tresnak gaitu ahal izango ditu, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 89. artikuluan ezarritakoaren arabera, TicketBAI fitxategiak bidaltzeko.

3. Zerga Administrazioak atzera bota ahal izango ditu bidalitako TicketBAI fitxategiak, baldin eta foru dekretu honetan eta hura garatzeko onartutako zehaztapen tekniko eta funtzionaletan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen ez badituzte. Kasu horretan, atzera botatako fitxategiak zuzendu egin beharko dira.

4. Estaldurarik eza eta ezein operadoreen bidez sarera sartzea ezinezkoa dela egiaztatzen bada, dela edozein teknologiatako banda zabaleko operadoreen bidez, dela sare mugikorreko operadoreen bidez, Ogasun Zuzendaritzak baimena eman ahalko du TicketBAI fitxategi guztiak Zerga Administrazioari geroratuta bidaltzeko, zergadunak hala eskatu ondoren.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko ditu bidalketa geroratua egiteko tokia, modua eta epea.

5. Zerga Administrazioari behar bezala bidalitako TicketBAI fitxategiak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri egongo den gordailu batean gordeko dira.

15. artikulua. Eragiketaren hartzaile den pertsonak edo erakundeak TicketBAI fitxategiak bidaltzea

1. TicketBAI betebeharra eragiketaren hartzaile den pertsonak edo erakundeak betetzen badu, TicketBAI fitxategiak pertsona edo erakunde jaulkitzaileari dagokion Zerga Administrazioa bidali beharko dira.

2. Bidalketa modu hauetakoren batean egin beharko da:

a) Eragiketaren hartzaile den pertsonak edo erakundeak, faktura egiten den aldi berean.

b) Pertsona edo erakunde jaulkitzaileak berak, faktura onartu bezain laster, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako moduan eta tokian.

4. ATALA. *TicketBAI betebeharra adieraztea fakturan edo egiaztagirian*

16. artikulua. TicketBAI kodea eta QR kodea

1. TicketBAI softwareek sortutako ondasun emateen edo zerbitzu-prestazioen fakturek edo egiaztagirik TicketBAI kodea eta QR kodea izan beharko dituzte, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako zehaztapen tekniko eta funtzionalen arabera sortutakoak.

2. Foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritako definizioekin bat etorritik, faktura edo egiaztagiritzat hartzen diren dokumentuetan bakarrik txertatu ahalko dira aurreko paragrafoan aipatutako TicketBAI kodea eta QR kodea.

Ondorioz, ezin izango dira TicketBAI kodea eta QR kodea txertatu garraio agirietan, proforma fakturretan, aurrefakturretan edo fakturatzat nahiz egiaztagiritzat hertsiki hartzen ez diren beste dokumentu batzuetan.

5. ATALA. *Gorabeherak TicketBAI betebeharra betetzean*

17. artikulua. Gorabehera teknikoak TicketBAI betebeharra betetzean

1. Zerbitzu elektrikoa eten, suntsitu, huts egin, matxuratu, hautsi edo ezohiko bestelako egoeretan, zergadunak TicketBAI fitxategirik sortu ezin badu edo fakturak edo egiaztagiriak egiterik ez badu TicketBAI softwarea erabiliz, eta fakturak eragiketa egiten den unean egin behar badira, Zerga Administrazioari jakinaraziko zaio egoera horren berri, eta zergadunak faktura edo egiaztagiria emango dio hartzaileari beste baliabide batzuen bidez, horren kopia gordeta.

Faktura edo egiaztagiria sail espezifiko batean kontsignatuko da; sail hori artikulua honetan xedatutakoaren arabera jaulkitako faktura edo egiaztagirientzat bakarrik erabiliko da, eta honako adierazpena erantsiko zaio: "TicketBAI betebeharra garatzen duen Foru Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoaren arabera egindako faktura edo egiaztagiria".

2. TicketBAI fitxategiak sortzea eta TicketBAI softwarea erabiliz fakturak edo egiaztagiriak egitea eragozten duen arrazoia desagertu bezain laster, zergadunak egindako ondoz ondoko faktura eta egiaztagiri guztien datuak sartu beharko ditu TicketBAI softwarean, TicketBAI fitxategiak sortu beharko ditu eta Zerga Administrazioari bidali.

TicketBAI softwareak emandako faktura edo egiaztagiria bikoiztutzat joko da.

Nolanahi ere, eragiketaren hartzaile den pertsonak edo erakundeak fakturaren edo emandako frogagiriaren kopia bat eskatu ahal izango du, TicketBAI kodea eta QR kodea jasotzen dituen.

3. Salbuespenezko kasuetan, hala nola aldi baterako estaldurarik ez dagoenean, telefono bidezko zerbitzua edo zerbitzu telematikoa eteten denean, bidalketa sistema matxuratuta dagoenean edo zergadunak TicketBAI fitxategiak sortu baina Zerga Administrazioari bidali ezin dizkionetan, TicketBAI softwareak sortutako TicketBAI fitxategi guztiak metatuko ditu eta konexioa berrezarri bezain laster bidaliko ditu.

IV. KAPITULUA

TicketBAI fitxategiak gordetzea

18. artikulua. TicketBAI fitxategiak gordetzeko betebeharra

Zergadunek Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 69. artikuluan aipatzen diren epeetan gorde beharko dituzte TicketBAI fitxategiak.

V. KAPITULUA

TicketBAI betebeharra betetzen dela egiaztatzea

19. artikulua. Pertsona edo erakunde hartzaileak TicketBAI betebeharra betetzen dela egiaztatzea

1. Faktura edo egiaztagiria hartzen duen pertsonak edo erakundeak, identifikazio kodearen edo QR kodearen bidez, faktura edo egiaztagiria jaulkitzen duten zergapekoek TicketBAI betebeharra betetzen dutela egiaztatu ahal izango du, ondorio horretarako eskura jartzen den web bidezko aplikazioa erabiliz.

2. Web bidezko aplikazioak TicketBAI kodearen edo QR kodearen datuak erakutsiko ditu formatu irakurgarrian.

Halaber, egiaztatutako fakturari edo egiaztagiriari lotutako TicketBAI fitxategia Arabako Foru Ogasunak jaso duen adieraziko du.

20. artikulua. Zerga Administrazioak TicketBAI betebeharra betetzen dela egiaztatzea

Zerga Administrazioa pertsonatu ahal izango da, bai ikerketa eginkizunetan, bai betebeharrak formalak egiaztatzeko eginkizunetan, zergadunek TicketBAI betebeharra behar bezala betetzen dutela egiaztatzeko. Bereziki, bidalitako edo emandako fakturretan TicketBAI betebeharra betetzen dela egiaztatu ahal izango du.

VI. KAPITULUA

TicketBAI softwarearen erregistroa

21. artikulua. TicketBAI softwarearen erregistroa

1. TicketBAI softwarearen erregistroa honako hauek osatuko dute: pertsona eta erakunde garatzaileek eta haiek garatutako TicketBAI softwareek, baldin eta 122 bis eta 113 bis artikuluetako 1. paragrafoan xedatutakoa, foru dekretu honetan araututakoa eta hura garatzeko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez onartutako zehaztapen tekniko eta funtzionalak betetzen dituztela adierazi badute.

2. Erregistro horrek errolda-izaera izango du, zergadunen eta zentsu betebeharren errolda arautzen duen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuaren 3. artikulua xedatutakoari jarraiki.

3. TicketBAI software erregistroan inskribatuta dauden TicketBAI software guztiak zerrenda batean jasoko dira, eta zerrenda hori Arabako Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko da, hurrengo artikulua 3. paragrafoak xedatutakoari kalterik egin gabe.

4. Elkarrekotasunez, TicketBAI betebeharra betetzat joko da zergadunak Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Bizkaiko Foru Aldundiak gaitutako eta artikulua honetan aipatzen den TicketBAI software erregistroaren baliokidea den erregistro batean inskribatutako softwarerik erabiltzen duenean. Software horiek, hala badagokio, aurreko paragrafoan aipatu dugun zerrenda publikoan jasoko dira.

22. artikulua. TicketBAI software erregistroan inskribatzea

1. TicketBAI softwareak TicketBAI software erregistroan inskribatu nahi dituzten pertsona eta erakunde garatzaileek erregistroan alta eman izanaren adierazpena aurkeztu beharko dute.

2. Alta-adierazpena era telematikoan aurkeztu beharko da, horretarako erabiltzaileen eskura jartzen den inprimakia betez. Inprimaki horretan, erantzukizunpeko adierazpena jasoko da eta pertsona edo erakunde garatzaileak sinatu beharko du. Inprimaki horretan, honako hauek adierazi beharko ditu garatzaileak:

a) Inskribatzeko eskatzen den softwareak bete egiten duela 122 bis eta 113 bis artikuluen 1. paragrafoan eta foru dekretu honetan xedatutakoa, bai eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez hura garatzeko onartutako zehaztapen tekniko eta funtzionalak ere, betetze horretarako erabilitako prozedura teknikoak deskribatzen dituen memoria labur bat erantsita.

b) Aurreko a) letran aipatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen jarraitu behar duela softwarea erregistroan inskribatuta dagoen bitartean, eta konpromisoa hartzen duela eskakizun eta baldintza horietan gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko.

3. Alta adierazpenean, softwarea aurreko artikuluen 3. paragrafoan aipatutako zerrenda publikoan ez argitaratzeko eskatu ahal izango da, baldin eta pertsona edo erakunde eskatzaileak eta hari lotutako pertsona fisiko edo juridikoek soilik erabili behar badute softwarea.

4. Inskripzioak badakar inskribatutako softwarean alta inskripzioaren zenbakia esleitzea, eta zenbaki hori TicketBAI fitxategietan sartu beharko da.

5. Erregistroan alta emateak ez du esan nahi Zerga-Administrazioak inskribatutako softwarea homologatuko duenik.

23. artikulua. TicketBAI softwarea erregistrotik kanpo uztea

1. Baldin eta Zerga Administrazioak 122 bis eta 113 bis artikuluen 1. paragrafoan eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez hura garatzeko onartutako zehaztapen tekniko eta funtzionaletan xedatutakoa betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena zehatza edo faltsua dela edo bete ez dela egiaztatzen badu, erregistro horretatik kanpo utziko da softwarea, indarrean dagoen legerian araututako eragin, erantzukizun eta ondorioei kalterik egin gabe.

2. Erregistrotik kanpo uzteko prozedura ofizioz hasiko da, pertsona edo erakunde garatzaileari aurreko 1. paragrafoan aipatutako ez-betetzea eragin dezaketen egitateak, inguruabarrak eta gainerako elementuak jasoko dituen txostena jakinarazita.

Prozedura hasteak ez du eragotziko zergadunek softwarea erabiltzea izan dezaten.

3. Softwarea garatzen duen pertsonak edo erakundeak, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo 15 egunetan, egoki iritzitako alegazioak egin ahal izango ditu. Epe horren barruan, hala bada-gokio, akatsa edo ez-betetzea zuzendu ahalko du.

4. Aurkeztutako agiriak eta zergapekoak egindako alegazioak aztertu ondoren, baztertzeko prozedura honela amaitu ahal izango da:

a) Ogasun zuzendariaren ebazpen bidez, softwarea TicketBAI software erregistrotik kanpo uztea erabakitzen duena, ez-betetzea prozeduran zehar zuzendu ez bada.

Baztertzeko erabakia softwarea garatu duen pertsonari edo erakundeari jakinaraziko zaio Dena delako softwarea TicketBAI erregistrotik kanpo utzita, gertaera hori TicketBAI software erregistroaren zerrendan argitaratuko da, eta horren erabiltzaile diren zergadunei jakinaraziko zaie. Zergadunek ezingo dute eraginpeko softwarea erabili zerrenda horretatik kanpo utzi dela argitaratu eta 3 hilabetera.

b) Jarduketak artxibatuta, prozedura izapidetzean:

– Prozeduraren hasarazpena eragin duten gertakariak, inguruabarrak edo gainerako elementuak dagoeneko ez direla egiaztatzen denean.

– Prozeduraren hasarazpena eragin duten gertakariak, inguruabarrak edo gainerako elementuak zuzendu direnean. Kasu horretan, softwarea garatzen duen pertsonak edo erakundeak alde aurretik egiaztatu beharko dio Zerga Administrazioari bere bezeroen artean software zuzenduaren bertsio berria banatuko duela, eta Zerga Administrazioak horri buruzko egiaztapen jarduerak egin ahal izango ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. TicketBAI alta fitxategiaren edukia, faktura sinplifikatua bada.

Faktura sinplifikatua jaulkitzen den kasuetan, ez da nahitaezkoa izango TicketBAI alta fitxategian sartzea foru dekretu honen 11. artikuluan 1. apartatuko b) letran aipatzen den informazioa, baldin eta Ogasun Zuzendaritzak maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren 4. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoaren arabera hartutako erabakiek edo formalizatutako baimenek eragindako jarduera sektoreetan sartzen diren zergadunak badira.

Bigarrena. Bidaia agentziak.

Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartutako fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarrian araututako kasuetan, TicketBAI betebeharra fakturak egiten dituzten bidaia agentziena izango da.

Hirugarrena. 18/2013 Foru Dekretua, maiatzaren 28koa, fakturazio betebeharrak arautzen dituen, aldatzea.

Fakturazio betebeharren arautegia onartzen duen maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuan, honako aldaketa hauek egin dira:

Bat. 6. artikuluan 1. paragrafoaren a) idatz-zatiari 6. zenbakia gehitu zaio; zenbaki horrek idazkera hau izango du:

“6. TicketBAI betebeharra garatzen duen foru dekretuaren 17. artikulua arautzen duenaren arabera ematen direnak”

Bi. 14. artikuluan 2. apartatuari c) letra gehitu zaio, haxe da edukia:

“c) TicketBAI betebeharra garatzen duen foru dekretuaren 17. artikulua arautzen dituen inguruabarretan”

Hiru. Paragrafo bat gehitu zaio 26. artikuluan 1. apartatuari. Haxe da edukia:

“Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek eta jarduera ekonomikoen etekinak errenta egozketan jasotzen dituzten erakundeek, erregelamendu honen 1. artikulua xedatutakoaren arabera, egiaztagiria eta haren kopia egin beharko dituzte, erregelamendu honen 3.1 artikuluan a) eta d) letretan xedatutakoaren arabera fakturarik egiten ez duten eragiketengatik”

Lau. 27. artikulua gehitu da. Haxe da edukia:

“27. artikulua. Sozietateen gaineko Zergan, eragiketak dokumentatzeko betebeharra

Zerga honen zergadunek, erregelamendu honen 1. artikuluan araututakoari jarraiki, egiaztagiria eta haren kopia egin beharko dituzte, erregelamendu honen 3.1. artikuluan a) eta d) letretan xedatutakoaren arabera fakturarik egiten ez duten eragiketengatik”

Bost. 28. artikulua gehitu da. Haxe da edukia:

“28. artikulua. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, eragiketak dokumentatzeko betebeharra

Establezimendu iraunkorraren bidez errentak lortzen dituzten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Beren jarduera garatzean egiten dituzten eragiketengatik faktura eta horren kopia egiteko betebeharra, erregelamendu honetan araututako baldintzetan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako dagokien araubidea edozein dela ere.

Aurreko lerrokadan ezarritako betebeharra betetzat joko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziaren barruan dauden jarduerak garatzean egindako eragiketaren pertsona edo erakunde hartzaileak 16.1 artikulua xedatutako ordainagiria ematen duenean.

b) Erregelamendu honen 1. artikulua araututakoari jarraiki, erregelamendu honen 3.1 artikuluen a) eta d) letretan xedatutakoaren arabera fakturarik egiten ez duten eragiketengatik egiaztagiria eta horren kopia egiteko betebeharra”.

Sei. 29. artikulua gehitu da. Hauxe da edukia:

“29. artikulua. Eragiketak egiaztagiri bidez dokumentatzeko betebeharra arautzea

Eragiketak egiaztagiri bidez dokumentatzeko betebeharra betetzeko, erregelamendu honen 1. tituluaren eragiketak faktura bidez dokumentatzeko betebeharrari buruz xedatutakoa beteko da, 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa izan ezik.

Erregelamendu honetako 1. tituluaren xedatutakoaren arabera, eragiketak fakturen bidez dokumentatzen direnean, ulertuko da eragiketen dokumentazio betebeharra bete dela, egiaztagiri bidez”.

Laugarrena. 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena, aldatzea.

3. artikuluen 1. apartatuari d) letra gehitu zaio. Hauxe da edukia:

“d) Ticketbai Software Erregistroa, TicketBAI betebeharra garatzen duen Foru Dekretuaren VI. kapituluaren araututakoa”.

Bosgarrena. 124/1993 Foru Dekretua, apirilaren 27koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregelamendua onesten duena, aldatzea.

62. artikuluen 6. apartatua aldatu da eta honela idatzita geratu da:

“6. Aurreko apartatuetan xedatzen dena gorabehera, artikuluen honen lehenengo apartatuan aipatutako erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bitartez eguneratu beharko dira, enpresaburu edo profesionalek eta zergaren beste subjektu pasibo batzuek fakturazio erregistroak elektronikoki hornituz, egutegiko hilabetearekin bat datorren likidazio aldia badute, araudi honen 71.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

Gainera, aurreko paragrafoan aipatu ez diren enpresaburu edo profesionalek eta zergari lotutako beste subjektu pasibo batzuek 40. artikuluen 1. apartatuan, 47. artikuluen 2. apartatuan, 61. artikuluen 2. apartatuan, eta artikuluen honen lehenengo apartatuan aipatutako erregistro liburuak eguneratzea aukeratu ahalko dute, Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bitartez, araudi honen 68 bis artikuluan ezarritako inguruabarretan.

Aurreko laugarren apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, erregistro liburu bakarrak osatuko dira, eta horietan zergaren aplikazio lurraldean kokatutako establezimendu guztietako eragiketak jasoko dira.

TicketBAI betebeharra betetzeko Zerga Administrazioari bidalitako informazioak erregistro-liburuak paragrafo honetan aipatzen den egoitza elektronikoen bidez eramateko betebeharra betetzeko balioko du. Hala ere, betebeharrak hori dela bidez, bidalitako TicketBAI alta fitxategian jasotakoaz gain, informazio gehiago eman behar bada, hala badagokio, dagokion informazio gehigarria eman beharko da, erregelamendu honen 69 bis artikulua ezarritako epean.

Fakturazio erregistroak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bitartez emango dira era elektronikoen, web bidezko zerbitzuren bat erabiliz edo, hala badagokio, inprimaki elektronikoen bitartez, betiere Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren aginduz onartutako erregistro esparruekin bat etorritik.

Seigarrena. 41/2006 Foru Dekretua, ekainaren 6koa, Arabako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Arautegia onartzen duena, aldatzea.

33. artikuluari h) letra gehitu zaio. Hauxe da edukia:

“h) TicketBAI betebeharra garatzen duen Foru Dekretuak jasotzen duen TicketBAI obligazioa ez betetzea. Atzerapena zenbatuko da ondorioak izan ditzakeen prozeduraren bat hasten denetik betetzen den datara arte”

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA TicketBAI betebeharra ezartzeko egutegia

1. TicketBAI betebeharra zergadunek betetzen duten enpresa, lanbide edo arte jardueraren arabera eskatu ahal izango da, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Tarifak onartzen dituen uztailaren 23ko 573/1991 Foru Dekretu Arauemaileak xedatutakoari jarraiki, bai eta horiek aplikatzeko jarraibideari jarraiki ere, honako egutegi honen arabera:

a) 2022ko urtarrilaren 1ean, TicketBAI betebeharra borondatez betetzea aukeratu duten zergadunei eskatu ahalko zaie.

b) 2022ko apirilaren 1ean, Arabako Foru Aldundiaren erakunde laguntzaile diren aholkulariei eskatu ahalko zaie.

c) 2022ko uztailaren 1ean, honako epigrafe hauetan bildutako jarduerak egiten dituzten zergadunei eskatu ahalko zaie:

– 1. ataleko 652.1 epigrafea: sendagaien, osasun produktuen eta higiene pertsonaleko produktuen txikizkako merkataritza.

– 2. atalean ageri diren epigrafe guztiak.

d) 2022ko urriaren 1ean, foru dekretu honen 2. artikulua jasotzen dituen gainerako zergadunei eskatu ahalko zaie.

2. Zergadunek jarduera bat baino gehiago egiten badituzte eta jarduera horiek bi epigrafetan edo gehiagotan badaude, eta epigrafe horiek galdagarritasun data desberdina badute, TicketBAI betebeharra eskatu ahalko zaie jarduera guztiei, lehenengoarentzat eskatu ahal denean.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, foru agindu bidez, xedapen iragankor honetan xedatutako egutegia aldatu ahal izango du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean hastea eta ondorioak.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Araugintzako gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA